

Armagintza

Espainiak arma esportazioak bikoiztu zituen 2010ean

Bada krisialdiaren eraginik nozitu ez duen sektore bat Espainiako Estatuan: armagintza. Aitzitik, aurreko urtearekin alderatuta arma esportazioak ia bikoiztu egin ditu, marka historiko guztiak hautsiz.

DANIEL UDALAITZ

LA TERCERA

EZ DIRUDI armagintzari eragin diotnik azken bi urteetan Espainiako Estatuako ekonomia eta industria sektore ia guztiak gogor jo dituen ekonomia eta finantza krisialdiak. Espainiako Estatuako armagintzak –Hego Euskal Herrikoak barne– 2010ean marka historikoa lortuko luke, baldin eta, aurreikusten denez, aurreko urtearekiko esportazioak bikoiztu –edo ia bikoiztu– baditu. 2009an, datu ofizialen arabera, Espainiako Estatuak armetan 1.346,52 milioi euro esportatu zituen.

Bestalde, 2009an munduko xahutze militarra 1,5 bilioi dolarrekoa izan zen, gutxienez. Horrek esan nahi du egunero 4.200 milioi euro gastatu zirela, inoiz iritsi gabeko zenbatekoa, ezta Gerra Hotzean ere, Stockholmeko Bakearen aldeko Nazioarteko Ikerketa Institutuaren (SIPRI) azken txostenaren arabera.

2.000 milioi euro baino gehiago joan den urtean

Sektorearen 2010. ekitaldiko datu ofizialik ez dago oraindik, baina ekainean edo uztaillean jakinaraziko dituztela aurreikusten da. Hala ere, Zerga Agentziaren estatistiketatik ateratako 2010eko lehen seihilekoko datu objektiboak badaude. Datu horien arabera, Espainiako Estatuak 2010eko lehen seihilekoan aurreko urteko aldi bereko arma esportazioak bikoiztu zituen, hau da, 900 milioi euro baino gehiago saldu zituen. Joera horri eutsi



Israeli 2,8 milioi euro saldu zizkion Espainiak 2008an kohete eta misiletan. Irudian, Israelek 2008an Gazan misilez egindako bonbardaketaren biktima.

bazaio, litekeena da 2010eko ekitaldia 2.000 milioi euro inguruko arma salmentekin itxi izana, hau da, aurreko urtean baino %33 gehiago.

Esportatutako armen %42,3 Europar Batasuneko (EB) eta NATOKo herrialdeei saldu zitzairen, eta gainerako %57,7 banatu zen 60 herrialderen artean. “Kezkagarritzat” jotzen diren herrialdeei ere saldu zaizkie, hala nola Saudi Arabia, Kolonbia, Israel, Ghana, Pakistan eta Marokori.

Zehazki, 2010eko lehen seihileko horretan, Espainiako Estatuak armetan 3,2 milioi euro saldu zizkion Israeli, 453.000 euro Saudi Arabiari, eta 285.000 euro Kolonbiari.


Datu horiek erakunde serio eta profesionalak jakinarazi dituzte: Nazioarteko Amnistia, Greenpeace, Intermon Oxfam eta Fundació per la Pau. Erakundeok, Gatazkei eta Ekintza Humanitarioei buruzko Ikasketen Institutuarekin batera (IECAH), salatu dute esportazioak

3.000 lanpostu Euskal Herrian

Espainiako Estatuko arma industria 850 enpresek osatzen dute. Urtean 3.600 milioi euro inguru fakturatzen dituzte eta zuzeneko 18.000 lanpostu inguru sortzen. Hauek dira sektoreko enpresa nagusiak: Madrilgo Construcciones Aeronauticas, CASA; Madrilgo Izar Construcciones Navales; Madrilgo General-Dinamycs-Santa Barbara; eta Iveco-Pegaso, hau ere Madrilgoa.

Sektore horretako Hego Euskal Herriko industria 20 bat enpresek osatzen dute, 3.000 lanpostu zuzen inguru eragiten dituztenak. Hauek dira enpresa nagusiak: Industria Turbo Propulsores, ITP, egoitza nagusia Zamudioko Parke Teknologikoan duena eta hegazkinetako motorrak eta turbinak ekoizten dituena. Arabako Gamesa Industrial, hegazkin militarren osagaiak eta azpimultzoak egiten dituena. Sener, ingeniari eta diseinu lanak egiten dituena. Explosivos Alaveses, Expal, mortero granadak, jaurtigaiak, lehergailuak eta pizgailuak egiten dituenak –Gasteizko fabrika itxi zuten, baina egun egoitza nagusia Madrilan du, eta beste fabrika bat Burgosen–. Sociedad Anonima Placencia de las Armas, SAPA, kanoiak egiten dituena.

handitzeak areagotu dezakeela 2007ko Legea hauts dezaketean “salmenten arriskua”; giza eskubideak



urratzeko erabil daitezkeen armaz hornitzea debekatzen du lege horrek.

2009an “herrialde kezkarrirei” esportatutako armak

2010eko datu ofizialik ezean, 2009koak jakinarazi dituzte. Eta hor ikusten da aipatutako GKEek hizpide dituzten herrialde “kezkarrirei” armak saldu zitzaizkiela. Israelera 790.635 euro esportatu ziren –2008ko 2,35 milioiak baino gutxiago–. Baina kezkarriena da 2009an Israeli 2,8 milioi euro saltzea onartu zela, horietatik 2,5 milioi lehergailutan, koheteetan eta misiletan –salmentak ez ziren 2009an oraindik gauzatu eta, beraz, 2010eko ekitaldian agertuko dira–.

Kolonbiak garraio hegazkin bat eta dagozkion babes logistikoa eta ordezkoko piezak erosi zituen 33,3 milioi euroren truke. Indiak itsasontzientzako ordezkoko piezak eta munizioa erosi zituen, 10,6 milioi euro ordainduta. Pakistanek hegaz-

kinentzako ordezkoko piezak eta Bengalako suziriak erosi zituen 760,321 eurogatik. Marokok Espainiako material militarren 113,90 milioi euro xahutu zituen 2008an eta 31,12 milioi 2009an. Zenbatekoa asko murriztu arren, onartutako eta gauzatu gabeko operazioak 50,5 milioi eurora iritsi ziren. Saudi Arabiak 5,1 milioi euro ordaindu zuen hegazkinentzako ordezkoko piezak eta arma arinentzako munizioa lortzeko. Ibilgailuetan eta hegazkinetan beste 9,3 milioi salmentak onartu ziren. Saharaz azpiko Afrika ere arma espainiarren bezero garrantzitsua izan zen: Botswanek bi garraio hegazkin erosi zituen, 37,5 milioi euroren truke. Ghanak, tropak garraiatzeko 30 ibilgailu, 2,3 milioi euroren truke. Ruandak, radar bat, 15,2 milioi euroren truke. Kenyak, hegazkin bonbak, 511.000 euroren truke. Eta Gabonek, hegazkinentzako ordezkoko piezak, 89.858 euro ordainduta. ■

ellauri
HOTELA

Altzusta 38, 48144 ZEANURI
+34 946 317 888 | ellauri.com

Naturra sentitu

Dive Tarpoen
urpekaritza

Kirol portua, A7 lokala
48992 GETXO (Bizkaia)
Tel / Faxe: 94 4912577
divetarpoen@euskalnet.net
www.divetarpoen.com